

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Lizitazioa, udal eraikinak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko

2016ko azaroaren 7an onartu ziren Kanpezuko Udalaren zenbait eraikinen garbiketa zerbitzuen kontratua arautzen duten administrazio klausula berezien agiria eta baldintza tekniko-koen agiria. Honen bidez lizitazioa iragartzen da, eduki honekin:

1- Erakunde esleipenduna: Kanpezuko Udala.

2- Kontratuaren xedea:

Xedearen azalpena: udal eraikinak garbitzeko zerbitzua.

Gauzatzeko lekua: zenbait udal eraikin; baldintza tekniko-koen agirian daude zehaztuta.

Epea: bi urte, 2017ko urtarrilaren 1etik edo, geroagokoa bada, kontratua esleitu izanaren jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengo egun baliodunetik, 2018ko abenduaren 31 arte, egun biak barne; beste bi urtez luza daiteke, gehienez.

3- Izapidetzea eta prozedura.

Izapidetzea: arrunta.

Prozedura: irekia.

4- Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: Lizitazio oinarria 21,50 euro orduko da (BEZa aparte). Enpresek zerbitzua prezio hori baino merkeago egitea eskaini behar dute.

5- Behin-behineko bermea: 1.171,97 euro.

6- Agiriak eta argibideak eskuratzeko:

a. Erakundea: Kanpezuko Udala.

b. Helbidea: Samuel Picaza plaza, 1.

c. Herria eta posta kodea: 01110 Santikurutze Kanpezu.

d. Telefonoa: 945 353 033. Faxe: 945 40 54 44

e. Posta elektronikoa: campezo@campezo.eus

f. Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: Agiriak 9:00etatik 14:00etara azter daitezke, asteleheneetik ostiralera, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunaren bezpera arte

7- Eskaintzak aurkeztea

Epea: hamabost egun, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken egun hori larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio klausula berezien agirian adierazitakoak.

Aurkezteko lekua:

Erakundea: Kanpezuko Udala.

Helbidea: Samuel Picaza plaza, 1.

Herria eta posta kodea: 01110 Santikurutze Kanpezu.

Lizitatzailleak bere eskaintzari eutsi beharko dion epea: esleitu arte.

8- Kontratatzen berriazko betekizunak: ekonomia eta finantza kaudimena eta tekniko-profesionala, administrazio klausula berezien agirian jasotzen den eran.

9- Eskaintzak irekitzea: Kanpezuko Udalaren bulegoetan, goizeko 10:00etan, proposamenak aurkezteko azken egunaren hurrengo ostegun baldiodunean; proposamena postaz bidaltzen bada, Administrazio publikoko kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa hartuko da kontuan.

10- Bestelako argibideak: ikus administrazio klausulen agirian eta Kanpezuko udaletxean.

11- Iragarkiaren gastuak: esleipendunak ordainduko ditu (gehienez, 300 euro).

12- Webgune honetan eskura daitezke agiriak: www.campezo.eus (kontratatzaillearen profila)

Santikurutze Kanpezu, 2016ko azaroaren 11

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO